

«Muturreko bazterketa larritu egin da»

Mabel Cenizo • Caritaseko arduraduna

Pobrezia esparru ekonomikotik harago doan arazo bat dela dio Gipuzkoako Caritaseko formakuntza arduradunak. Ohartarazi duenez, pobrezia «kronifikatzen» ari da.

Edurne Begiristain

Pobreziaren «alderdi desberdinei» erreparatu die Mabel Cenizo Gipuzkoako Caritaseko formakuntza arduradunak. Caritaseko Aurrerako Nazioarteko Egunean. Gizartearen kontzientzia eta politika publikoak eskatu ditu egoera iraultzeko.

Pobreziari argazki bat eginez gero, zer ikusiko genuke?

Pobreziak ez du aurpegi bakar bat, alderdi eta osagai desberdinek ditu. Pobreziak diru sarrera nahikorik ez duten edo diru sarriarrik ez duten familiekin du zerikusia, baina baita gizarte babesik ez dutenekin, lan merka-

tuaren barruan egon arren etxebizitzaren gastuei aurre egin ezin dietenekin eta egoera administratibo irregularrean daudenekin ere.

Caritasek kaleratutako azken ikerketek agerian utzi dute muturreko bazterketa areagotu egin dela.

Azken urteotako krisi zikloaren ondorioz, familia batzuk bazterketaren eremuan egituratu dira, eta ezin dira pobreziaren eremutik atera. Baina badira beste batzuk integrazteaz lortuta ere baztertuta bizi direnak oraindik. Langile pobreekin ikusten dugu hori: aurrera ateratzeko, lana izateko eta diru sarrerak lortzeko

egiten duten ahalegin guztia ez da nahikoa, eta haien egoera gero eta okerragoa da. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan gero eta familia gehiago geratzen ari dira ilaran, gizartearen erdigunetik urrun. **Ekainean aurkeztutako txosten batean ohartarazi zenuten familia gutxiago artatzen dituzela, baina behar handiagoak.**

Muturreko bazterketak gora egin du, hau da, lehenik gaizki zegoena okerrago dago orain. Kronikotasun handiagoa dago artatzen ari garen etxeetan. Ez da soilik arazo ekonomiko bat; ertz asko ditu: besteak beste, hezkuntzaren eremu material gutxiatarako sarbide nahikoa izatearekin du zeri-

kusia, eta tratamenduak edo sendagaiak eskuratu ezin izatearekin ere bai. Jendeari gero eta gehiago kostatzen zaio bazterketa espazio horretatik ateratzea, eta, hala, normala da zailtasunak enkistatzea. Garai batean, uste genuen lanarekin pobreziatik ateratzen ahal zela, baina hori jada ez da horrela. Langile pobreak ere badira. Kronifikazio hori hor dago, eta zerbaitekin egin beharra dago.

Zer faktorek dute eragina bazterketa larriaren areagotzean?

Bi kontu aipatuko nituzke: lan merkatua eta etxebizitza. Galdera da ea nola laguntzen diegun lan merkatuan dauden pertsonei diru sarrera nahikoak izan ditza-

Pobrezia handitu egin dela ohartarazi dute

+ Pobreziaren Aurrerako Nazioarteko Eguna izan zen atzo, eta hainbat mobilizazio egin zituzten Euskal Herrian. Mezu nagusi bat entzun zen denetan: desberdintasunak areagotu egin dira, eta konponbidea premiazkoa da. EAEko Aurrerako Nazioarteko Eguna ezinbestekoa dela «egiturazko aldaketa sakonak» egitea eta «pobreziaren zikloa» amaitzea. Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurrerako Europako Sareak, berriz, datua eman zuen: urtebeteen %13tik %16ra igaro da arriskuan dagoen biztanleria Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Nafarroako Parlamentuak, berriz, pobrezia amaitzeko eskatu zuen agiri batean.

ten. Uste dugu DSBE diru sarrearak bermatzeko errenta berriari buruzko erreformak arindu egingo duela langile pobreen egoera. Etxebizitza merkatua ere faktore garrantzitsua da: etxebizitza beharrezkoa da, baina familien etxebizitzaren gastua eta mantentzea ikaragarria da. Politika publikoak behar ditugu hori konpontzeko.

Caritasea laguntza bila doan pertsonaren profila nolakoa da?

Emakume gehiago daude pobrezia eta bazterketa egoeran, batez ere guraso bakarreko familietakoa eta seme-alabak zaintzen dituztenak. Jatorriaren arabera, arrakala ere sumatzen dugu: pobrezia askoz ere handiagoa baita migratzaileen artean. Bestalde, gehien kezkatzen nauten faktoreetako bat da pobrezia gartzetari ari dela. Ez da bidezkoa etxe pobreetan dauden haur horiek aukerarik ez izatea pobrezia eta bazterketa egoeretatik ateratzeko. Izan ere, haurrak eta gazteak babesteko mekanismoak jartzen ez badugu, pobrezia eta bazterketa transmititu egingo dira.

Zeintzuk dira aurrera begirako eronkak pobrezia amaiazteko?

Gizarte zibil kontzientziatu bat eta politika publiko egokiak behar ditugu egoera aldatzeko. Bi aldagaia elkarrekin lotuta daude. Gizarte zibilak elkartasuna praktikara eraman behar du egoera hau iraultzeko, eta elkar-tasun horrek politika publikoaren akuilua behar du. Hau da, gizarte zibilak kontzientziazioa lana egin behar du elkartasuna politika publikoetara irits dadin.



IRAGARKIA

Azterketak eta aurkeztutako txostenaren ondoren, Gipuzkoako Ur Kontsultazioa Batzar Nagusiak, 2022ko urriaren 13an egindako Batzar Nagusian, behar den legezko gehiengoz honako hau erabaki zuen:

1º 2023ko Uraren Ziklo Integralari doazkion zerbitzuen prezioak onartzea.

2º Uraren Zerbitzu Integralaren Ordenantza onartzea.

3º Interesatuek, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontua arautzen duen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte ondorengo arauen arabera:

a) Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: Hilabete, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik hasita.

b) Aurkeztzeko bulegoa: Kontsultazioaren Bulegoetan, Donostiako Blanca Vinuesa Eraikina, Portuetxe kalea, 16 – lehenengo.

c) Erreklamazioak aurkeztu dauden organoa: Gipuzkoako Ur Kontsultazioa.

Aipaturiko informazio epea inolako erreklamazioarik aurkeztu gabe igaroz gero, aipaturiko dokumentua behin-betiko onartutaz joko da, akordio berriaren beharrik gabe.

Donostia, 2022ko urriaren 13a.
Olatz Peon Ormazabal, Lehendakaria



RAGARKIA

GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENAREN HASIERAKO ONARPENA

Getxoko Udalbatzak bi mila eta hogeita biko irailaren 30ean egindako ezohiko Osoko Bilkuran hasierako iaeraz onartu du GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEA, INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREKIN batera.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85. artikularekin bat etorrit, hasierako onarpen-akordio horrek ezartzen du gehienez ere bi urterako etengo dela era gutxiatarako onarpenak, baimenak eta lizentziak ematea, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-arabidea aldatzea dakarten eremuetan. Hori gutxi udal zerbitzu teknikoek zehaztu duten Laburpen Esekutiboan zehazten den moduan.

Neurri horrek 1778/2022 Dekretuak erabakitako aukerako etendura ordetzeko du. Adierazitako epea igarotzeagatik azkenduko da, eta, nolahi ere, izapidetzen ari den plana behin betiko onartzearekin batera, hori lehenagokoa bada.

Aldi berean **2023KO URTARRILAREN 15ERA ARTE** jendaurreko informazio-aldia irekitzeko onartu du, dokumentuak kontsultatu nahi duen edonoren eskura egoteko eta egokitzat jotzen diren alegazioak egin ahal izateko.

Jendaurreko izapidetaren aldi berean, GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA ETA HORREN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN BERRIKUSPEN-ERA eragindako administrazio publikoetara eta interesdunei kontsultatzea erabaki da. Ingurumen-ebalazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikularen arabera.

GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSTEAREN DOKUMENTUA ETA HAREN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN ERABAKIA

www.hapo-getxo.eus webgunean eskuratu ahal izango duzue dokumentua.

Gainera, lau hitzaldi publiko edo azalpen-saioak egingo dira, 19:00etan: lehenengo, orokorra, Muxikabarrin (urriaren 20an) eta beste hiru Erromoko Kultur Etxean (azaroaren 3an), Andra Mariko Kiroldagian (azaroaren 10ean) eta Fadura Kiroldagian (azaroaren 17an).

Hiru erakusketak antolatuko dira urriaren 15etik urtarrilaren 15era: Erromoko Kultur Etxean, Andra Mariko Kiroldagian eta Fadura Kiroldagian.